



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Portugaleteko Udala

Portugaleteko unibertsitatez kanpoko ikastegietako eta irakaskuntza kooperatibetako gurasoen elkarte eta helduen irakaskuntzako ikasleen elkarateetarako dirulaguntzen oinarri-arauak onetsi.

Portugaleteko Udalbatzak, 2022ko apirilaren 28ko ohiko bilkuran, besteak beste, Portugaleteko unibertsitatez kanpoko ikastegietako eta irakaskuntza kooperatibetako gurasoen elkarte eta helduen irakaskuntzako ikasleen elkarateetarako dirulaguntzen oinarri-arauak onetsi ditu. Hona hemen arauok:

Portugaleten, 2022ko maiatzaren 10ean. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo

**PORTUGALETEKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTEGIETAKO ETA IRAKASKUNTZA KOOPERATIBETAKO GURASOEN ELKARTE ETA HELDUEN IRAKASKUNTZAKO IKASLEEN ELKARTEETARAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI-ARAUAK****1. artikulua. — Xedea**

Deialdi honen xedea da Portugaleteko unibertsitatez kanpoko ikastegietako eta irakaskuntza kooperatibetako gurasoen elkarte eta helduen irakaskuntzako ikasleen elkar-teei ikasturte honetan diru-laguntzak ematea, honelako gastuak ordaintzen laguntzeko:

- a) Portugaleteko unibertsitatez kanpoko ikastegietako eta irakaskuntza kooperatibetako gurasoen elkarte eta helduen irakaskuntzako ikasleen elkarteen funtzio-namendurako beharrezkoak diren jarduerak eta azpiegiturak.
- b) Portugaleteko unibertsitatez kanpoko ikastegietako ikasleei eta horien gurasoei zuzendutako jarduerak.

Jarduerak diruz laguntzekoak izango badira, elkarbizitza eta begirunea kontuan hartu beharko dituzte, balio nagusi gisara.

2. artikulua. — Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradunak izan ahal izango dira Portugaleteko unibertsitatez kanpoko ikastegietako eta irakaskuntza kooperatibetako gurasoen elkarteak eta helduen irakaskuntzako ikasleen elkarteak, baldin eta legez eratuta badaude, haien helburuak bat badatoz arau hauekin eta elkarte moduan inskribaturik badaude dagokien erregistroan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen gurasoen elkarteak arautzen dituen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuaren (1987ko apirilaren 7ko EHAA) 6. eta 11. artikuluetan ezartzen denaren arabera. Eskatzailea irakaskuntza kooperatiba bada, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta egon beharko du irakaskuntza atalean egon ere.

Dirulaguntzen onuraduna izateko, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikulua bete beharko dute. Artikulu horrek zehazten du zeintzuek ezin duten diru-laguntza jaso; besteak beste, hauek:

- Epai irmo baten bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearen zigorra jaso dutenak.
- Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz kendu zaienak, errudun deklaratu dituztelako.
- Elkartearen legezko ordezkariak egoera hauetakoren batean badaude: Gobernu-kideen eta Estatuko Administrazio orokorreko goi mailako kargudunen interes gatazkak arautzen dituen apirilaren 10eko 5/2006 Legean aurreikusitako egoeraren batean, Herri administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/198 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean daudenak.
- Indarrean dauden arauetan ezarritakoaren arabera, zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak bete gabe dituztenak.
- Dirulaguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenak. Ondorio horretarako uste izango da onuradunek dirulaguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordainduta dituztela, baldin eta onuradunek zorrik ez badaukate dirulaguntza eman duen Administrazioarekin, dirulaguntzak premia bidean itzuli dituztelako edo, premia bidea erabili ezineko onuradunak badira, borondatezko bidean eutsi gabeko dirulaguntzak itzuli dituztelako. Uste izango da, halaber, onuradunek dirulaguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordainduta dituztela, baldin eta zorrak atzeratuta edo zatikatuta badaude edo etetea erabaki bada, itzultzearen gaineko ebazpena aurkatuta.
- Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso dutenak, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera.



- Inola ere ezingo dira izan dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak 4. artikulua 5. eta 6. zenbakietan aurreikusitako debekuren bat jaso duten elkarteak.

Ezingo dira diru-laguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile izan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu bereizkeriagatik zehapen administratiboa edo penala jaso dutenak edo administrazio zehapen bidez administrazio publikoen dirulaguntza publikoak eskuratzeko debekua jaso dutenak, baldin eta epai edo zehapen horretan ezarritako aldia igaro ez bada.

3. artikulua. — Eskaerak egiteko epea

Eskaera-orria Udalaren Erregistro Nagusira ekarri beharko da astelehenetik ostirale-ra 8:00etatik 14:00etara edo San Roke plazako Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegora, astelehenetik ostirale-ra 14:30etik 20:15era eta larunbatetan 9:00etatik 13:45era

Horretarako epea zabalik egongo da hilabete batean, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

4. artikulua. — Ekarri beharreko agiriak

Diru-laguntzaren eskabidearekin batera, agiri hauek ekarriko dira, I. eranskineko ereduak erabiliz:

- a) Eskaera-orria izenpetzen duenak daukan ordezkatzeko-ahalmenaren egiaztatzea.
- b) Zordunaren fitxa, behar bezala beteta, bakar-bakarrik dirulaguntza aurreneko aldiz eskatzen denean edo aurreko deialdi batean adierazitako datuak aldatu egin badira.
- c) Elkarteen erregistroan inskribaturik egoteko egiaztatzea, 1. artikuluko esan bezala, baldin eta dirulaguntza aurreneko aldiz eskatzen bada edo datuen bat aldatu badute.
- d) Gurasoen elkarteko idazkariaren agiria, eskaera-orria aurkezteko epean zenbat kide dituen eta deialdiaren ikasturteko kuota zenbatekoa den ziurtatzeko.
- e) Ikastetxeko zuzendariaren agiria, eskaera-orria aurkezteko epean zenbat ikasle dauden ziurtatzeko.
- f) Ikastetxeko zuzendariaren agiria, aurreko ikasturtean zenbat ikasle zuten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beka ziurtatzeko.
- g) Ikastetxeko ordezkaritza organo gorenaren idazkariaren agiria, ziurtatzeko organo horrek onetsi egin dituela ikasturterako proposatutako eskolaz kanpoko jardueran, II. eranskinaren arabera.
- h) Ardurazko adierazpena, beste eskaera batzuen gainekoa, eta, behar izanez gero, helburu berbererako beste laguntza, diru-sarrera eta baliabide batzuk jaso izanaren gainekoa, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk emanda (IV. eta V. eranskinak).
- i) Ardurazko adierazpena, eskaerako eta eskaerarekin batera datozen agirietako datuen egiaztatzeko (IV. eranskina).
- j) Ardurazko adierazpena, elkarte eskatzailea oinarri-arau hauen 2. artikuluko debeku-egoeretan ez dagoelakoa, bereziki aipatu behar duelarik Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete behar diren gainekoa (IV. eranskina).
- k) Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren agiria, eskatzaileak Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea.
- l) Ikastetxeak antolatu gabe, ikastetxeko instalazioetan egiten diren jardueren zerrenda, antolatzailea edo arduraduna aipatu behar delarik.

5. artikulua. — Finantzazioa

Deialdi honetarako xedea betetze aldera, finantzazioa indarreko aurrekontuko 07 3260 481.01 aplikazioaren kargura egingo da deialdia onesten denean.



Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, beste entitate publiko zein pribatu batzuek emanda. Hala ere, inoiz ez da gainfinantzaziorik gertatuko.

Dirulaguntza batzuk batera jasota, gainfinantzaziorik gertatuko balitz, onuradunak atzera itzuli beharko luke Portugaleteko Udalak emandako diru zenbatekoaren zati bat, finantzatutako kopuru osoari dagokionez Udalak eman dion zenbatekoaren heinean.

6. artikulua. — Dirulaguntzaren kuantifikazioa: hainbanaketa

Dirulaguntzak honela kuantifikatuko dira:

1. Eskaera egiten duten entitateek zenbateko finko bana jasoko dute: herri ikastetxeetako elkarteek hirurehuna euro (300 euro); itunpeko ikastetxeetakoek, berriz, ehuna euro (100 euro).
2. Ikastetxean aurreko ikasturtean dauden ikasle bekadunen ehunekoak ere zenbateko finkoa (18 euros) edukiko du, asmoa delarik gizarte baliabide apurreko ikastetxeetako entitateen alde egitea.
3. Ikasleko ere zenbateko finkoa jasoko dute entitateek. Zenbateko hori kalkulatzeko, eragiketa hauek egingo dira: aurrekontuko gehieneko kopurua ken entitateei aurreko kontzeptuak direla eta esleitutako kopuruak zati entitate horien ikastetxe guztietako ikasle guztiak ikasturte honetan.

7. artikulua. — Ordainketa

Dirulaguntzak aldi bakar batean ordainduko dira, behin horren ebazpena onetsita, ikasturtean programatuiko jardueren burutzapena errazte aldera.

8. artikulua. — Justifikazioa

Elkarteek deialdi honen bitartez eskuratzen duten dirua zertan gastatu duten justifikatu beharko dute eta, horretarako, deialdiaren urteko urtarilaren 1etik 31ra bitartean egin dituzten jardueren fakturen fotokopia konpultsatuak eta horien zerrenda aurkeztu beharko dituzte, III. eranskina erabiliz. Halaber, aipatu beharko dute faktura bakoitza zein jarduerari dagokion.

— Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, baldin eta behar-beharrezkoa bada, eta haien kostua ezin izango da inolaz ere merkatuaren balioa baino handiagoa izan.

— Egindako gastutzat joko da justifikatzeko aldia amaitu baino lehenago dagoeneko ordainduta dagoena. Hori dela eta, ez dira onartuko argi eta garbi proiektuaren gastua identifikatzen ez den ordainagiririk.

— Gehienez ordaindu beharreko zenbatekoa, eskudirutan, 300 eurokoa izango da.

— Ordaintzeko erak:

a) Ordainketa transferentziaz edo banketxe-helbideratzearen bitartez. Ordainketa egiaztatzeko agiri hauetariko bat aurkeztu beharko da: banketxearen transferentziaren aginduaren frogagiria edo eginiko helbideratzearen jakinarazpena.

b) Eskudirutan ordaintzea:

Salbuespen gisa, eta gastuen zenbateko txikia dela eta, faktura osoen bidez justifikatzea zaila bada, faktura sinplifikatuekin (tiketa) ordeztu ahal izango dira, entitatearen ziurtagiri batekin batera, gastu horiek entitateak emandako dirulaguntzaren kargura egin dituela adieraziz, eta horien jatorria eta dagozkien kontzeptuak zehaztuz.

Fakturazio-erregelamenduak esaten dion bezala, «Kutxako tiketa» edo «faktura sinplifikatua» k «eskudirua» adierazpena eta eragiketa-data izan behar ditu, eta horrek egiaztatuko du ordainketa justifikazio-epearen barruan egin den ala ez.

Justifikazioa udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko da astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara edo Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegora (San Roke pla-



za z. g.) astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era eta larunbatetan 9:00etatik 13:45era, deialdiaren hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.

9. artikulua. — Izapidetza eta ebazpena

1. Dirulaguntza hauek izapidetuko dituen organoa Portugaleteko Udalaren Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Saila izango da.

Ebazteko ahalmena duen organoa, aldiz, Udalaren Gobernu Batzordea izango da,

2. Ebazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskaerak egiteko epea bukatzen denean zenbatzen hasita. Ebazteko epea igarota, eskaera batek berariazko ebazpenik izan ez badu, ulertuko da eskaera ezetsi egin dela Herri-Administrazioen Erregimen Juridikoari eta Administrazio-Jardunbide Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44.1 atalarekin bat etorritz.

Ebazpenak agortu egingo du administrazio bidea. Horren ondorioz, ebazpenaren kontra, dirulaguntzari buruzko jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita zenbatu beharreko bi hilabetetan administrazioarekiko auzi-errekurtsoa egin ahal izango da. Hala eta guztiz, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa egin baino lehen, ebazpena egin duen organoari egin ahal izango zaio birjarpenezko errekurtsoa hilabeteko epean.

3. Deialdi honetako dirulaguntzak eman eta onuradunei ordaindu baino lehen, guztiz bukatu egin beharko da Portugaleteko Udalak ematen dituen honelako beste dirulaguntza batzuen izapidetketan burutzeke egon daitekeen diru-itzulketa edo zigor-prozedura oro.

10. artikulua. — Konpromiso eta betebeharrak

1. Elkarre onuradunak ezinbestez jakinarazi beharko die bazkideei Portugaleteko Udalaren Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Sailaren laguntza jaso duela.

2. Onuradunak erraztu egin beharko ditu Portugaleteko Udalak egiten dituen frogaketa guztiak eta Administrazioako Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten dituen kontrol eragiketa guztiak ere bai, azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legislatiboko 50.2 atalak agindu bezala.

3. Onuradunak eskaeran adierazi bezalaxe erabili beharko du dirulaguntzaren zenbatekoa.

4. Onuradunak diruz lagundutako jarduerak sor ditzakeen arriskuen ardura izango du. Horren ondorioz, behar izanez gero, horretarako aseguru egokia kontratatatu beharko du.

11. artikulua. — Dirulaguntza itzuli beharra

1. Dirulaguntza jaso duten entitateek atzera itzuli beharko dute jasotako zenbatekoa, baldin eta hauexek gertatzen badira:

- a) Dirulaguntza lortzea, horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Dirulaguntzaren xedea ez bete.
- c) Diruz lagundutako jardueraren gostea gainditzeko duen finantzazioa lortu. Horrela gertatuz gero, entitateak Portugaleteko Udalari dagokion gainfinantzazioaren heineko zatia itzuli beharko luke.

2. Dirulaguntzaren zenbatekoa itzultzea eskatzeko ebazpena dirulaguntza eman duen organoak berak emango du.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa itzultzeko espedienteak Herri-Administrazioen Erregimen Juridikoari eta Administrazio-Jardunbide Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko VI. titulua bete beharko du. Entzunaldia eskainiko zaio interesatuari hamabost laneguneko epean.

**12. artikulua.—Zigorren jaurpidea**

Arau-hauste eta zigorren jaurpidea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiak eta Euskal Herriko Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak ezartzen dute.

13. artikulua.—Jaurpide juridikoa

Dirulaguntza hauek arauok eta azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Nagusiak arautuko dituzte.

14. artikulua.—Datuak babestea

Deialdi honetako informazioa eta datuak honako arautegi bi hauek babesten dituzte:

- 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorra, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datu Pertsonalak Babestekoa. (Aurrerantzean DPEO).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (aurrerantzean, DPBEBD).

Deialdi honen gainera informazioa eta datuak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Espainiako Zuzenbidea Euopar Batasunaren arauari egokitzearen premiazko neurriari buruzko uztailaren 27ko 5/2018 Errege Lege-Dekretuak babesten dituzte.

Xedapen Gehigarria

Arautegi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, udaletxeko iragarkien oho-lean eta www.portugalete.org webgunean erakutsiko da.

Oinarri-arauok, Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean argitaratzeaz gain, bai udal iragarki-taulan bai www.portugalete.org webgunean erakusgai egongo dira.

**I. ERANSKINA / ANEXO I****ESKAERA / SOLICITUD****Entitatearen datuak / Datos de la entidad**

Izena / Nombre
Ikastetxea / Centro
Presidentea / Presidente
Egoitza / Domicilio
IFK / NIF

Aipatutako entitatearen presidentek, Zuzendaritza Batzordeak erabakitakoa bete nahian eta Portugaleteko Udalak ikasleen gurasoen elkarteak eta beste hainbat diruz laguntzeko egin duen deialdiarekin bat etorritik, hauxe

El Presidente o la Presidenta de la citada entidad, cumpliendo lo acordado en la Junta Directiva de esta asociación y de conformidad con la convocatoria de ayudas a asociaciones de padres y madres de alumnos/as y otros, realizada por el Ayuntamiento de Portugalete,

ESKATZEN DU:

diru-laguntza eman dakiola aipatutako entitateari, proiektu dituen xedeei laguntzearen; hori dela eta, honako agiriak dakartza:

- ☐ Eskaera-orria izenpetzen duenak daukan ordezkatzeko-ahalmenaren egiaztagiria.
- ☐ Zordunaren fitxa behar bezala beteta (Baldin eta, lehen aldiz eskatzen bada edo daturen bat aldatu bada).
- ☐ Elkarteen erregistroan inskribaturik egoteko egiaztagiria, 1. artikulua esan bezala. (Baldin eta, lehen aldiz eskatzen bada edo daturen bat aldatu bada).
- ☐ Gurasoen elkarteko idazkariaren agiria, eskaera-orria aurkezteko epean zenbat kide dituen eskabidea aurkeztzen denean eta ikasturtean urteko kuota zenbatekoa den ziurtatzeko.
- ☐ Ikastetxeko zuzendariaren agiria, eskaera-orria aurkezteko epean guztira zenbat ikasle dauden ziurtatzeko.
- ☐ Ikastetxeko ordezkaritza organo gorenaren idazkariaren agiria, ziurtatzeko organo horrek onetsi egin dituela proposatutako eskolaz kanpoko jardueran (II. eranskina).

SOLICITA:

que le sea concedida a la citada asociación dicha ayuda, a fin de contribuir al logro de los fines que se proyectan, por lo que se adjunta la siguiente documentación:

- ☐ Documento acreditativo de la representación en virtud de la cual actúa el/la firmante de la solicitud.
- ☐ Ficha del acreedor debidamente cumplimentada (Solo en caso de ser la primera vez que se solicita o de haber modificado alguno de los datos).
- ☐ Documento acreditativo de la inscripción en el Registro de Asociaciones citado en el artículo 1. (Solo en el caso de ser la primera vez que se solicita la ayuda o de haber modificado alguno de los datos).
- ☐ Certificado del/la secretario/a de la AMPA del número total de miembros asociados en el plazo de presentación de la solicitud y de la cuota anual fijada para el presente curso.
- ☐ Certificado del/la director/a del centro del número total de alumnos/as del centro en el plazo de presentación de la solicitud.
- ☐ Certificado del/la Secretario/a del Órgano Máximo de Representación del centro de la aprobación por el citado OMR de las actividades extraescolares propuestas siguiendo el modelo del Anexo II.



- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">☐ Ardurazko adierazpena, beste eskaera batzuen gainera, eta, behar izanez gero, helburu berbererako beste laguntza, diru-sarrera eta baliabide batzuk jasotzeko gainera, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk emanda (IV. eta V. eranskinak).☐ Ardurazko adierazpena, eskaerako eta eskaerarekin batera datozen agiritako datuen egia gainera (IV. eranskinak).☐ Ardurazko adierazpena, elkarte eskatzailea oinarri-arau hauen 2. artikuluko debeku-egoeretan ez dagoelako, bereziki aipatu behar duen Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako Eusko Legebiltzararen otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete behar gainera (IV. eranskinak).☐ Ardurazko adierazpena, eskatzaileak tributu beharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituelako (IV. eranskinak).☐ Hauxe betetzen du: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 26koa, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrari buruzkoa. (IV. Eranskinak).☐ Hauxe betetzen du: 3/ 2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko. (IV. Eranskinak).☐ Ikastetxeak antolatu gabe, ikastetxeko instalazioetan egiten diren jardueren zerrenda, antolatzailea edo arduraduna aipatu behar delarik. | <ul style="list-style-type: none">☐ Declaración responsable sobre otras solicitudes y, en su caso, la obtención de subvenciones, ayudas, ingresos u otros recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados. (Anexos IV y V).☐ Declaración responsable sobre la veracidad de los datos contenidos en la solicitud y documentación que le acompaña (Anexo IV).☐ Declaración responsable de no hallarse incurso en las causas de prohibición para ser beneficiario que se citan en el artículo 2 de estas bases, con expresa referencia a la relativa al incumplimiento de la Ley del Parlamento Vasco 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (Anexo IV).☐ Declaración responsable de cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social (Anexo IV).☐ Cumple con el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, General de Protección de Datos. (Anexo IV).☐ Cumple con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales (Anexo IV).☐ Relación de actividades ajenas al centro que se realizan en sus instalaciones con mención expresa del organizador o responsable. |
|--|--|

Portugalete,

(izenpea eta zigilua firma y sello)

**DATUEN ALTA EDO ALDAKETA
ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS****PERTSONA EDO ENTITATE INTERESATUAREN EZAGUPENERAKO DATUAK
DATOS IDENTIFICATIVOS DE LA PERSONA O ENTIDAD INTERESADA**

NAN/IFK / DNI/CIF

Abizenak eta Izena/Sozietaren izena / Apellidos y nombre/Razón social

**BANKU DATUAK
DATOS BANCARIOS**

Bankua / Banco

Sukurtsala / Sucursal

K.D. / D.C.

K/Korrontea / C/Corriente

Kontu korrontearen jabea / Titular de la cuenta

Atzerriko diru-kontuetarako soilik/Bankuak bete behar
Sólo para cuentas corrientes en el extranjero/A rellenar por el banco

IBAN

Interesatuaren adostasuna
Conformidad de la persona interesadaBankuaren adostasuna
Conformidad del banco

En Portugalete, a ... de de ...

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian jakinaratzen dizugu zeure datuak «Terceros Contabilidad» izeneko fitxategian sartu eta erabiliko ditugula. Futxategi horren ardura Portugaleteko udalari dagokio eta udal kontularitza eta diru-sarreraren, gastuen, abalen eta fiantzen aurrekontua egiteko eta estatistikarako erabiltzen duela. Interesatuak datu horiek eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta aurkatu ahal izango ditu Portugaleteko udaletxeko Erregistro Nagusian: Solar plaza z.g. 48920 Portugalete.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero «Terceros Contabilidad», del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es realizar la contabilidad municipal y el presupuesto de ingresos, gastos, avales y fianzas y fines estadísticos. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento: Plaza del Solar s/n, 48920 Portugalete.

**PORTUGALETEKO UDALEKO DIRUZAINZTA
TESORERÍA DEL AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE**

**II. ERANSKINA / ANEXO II**

Ikastetxea / Centro:

OOGeko idazkaria / Secretario/a del OMR:

Arestian aipatutakoak, ikastetxe horretako idazkaria den aldetik, egiaztatzen du OOGk oniritzia eman diela egiaztagiri honekin batera aurtengo ikasturterako eskolaz kanpoko jarduera guztiei.

La persona arriba citada, como secretario/a del centro expresado, certifica que el OMR ha aprobado las actividades extraescolares previstas para el presente curso, cuya relación se adjunta a este certificado.

Portugalete,

O.I. PRESIDENTEA / Vº Bº PRESIDENTE/A
(jatorrizko izenpea / firma original)

IDAZKARIA / SECRETARIO/A
(jatorrizko izenpea eta zigilua / firma y sello originales)

**3. Diruz lagundutako jardueren diru-sarrerak / Ingresos de las actividades subvencionadas**

Norberaren finantzazioa / Financiación propia			
Herri finantzazioa Financiación pública	Eusko Jaurlaritzako sailak Departamentos del Gobierno Vasco		
	Foru Aldundia Diputación Foral		
	Udala Ayuntamiento		
	Eudel		
	Estatuko Administrazioa Administración del Estado		
	Europako Batzordea Comisión Europea		
	Beste batzuk Otros		
	Guztira Total		
Behin betiko diru-sarrerak Ingresos definitivos			

.....

(Tokia Lugar) (Eguna Fecha)
(Entitatearen izenpea eta zigilua / Firma y sello de la entidad)



IV. ERANSKINA / ANEXO IV

ARDURAZKO ADIERAZPENAK / DECLARACIONES RESPONSABLES

Hauxe adierazten dut entitate eskatzaileaz Declaro que la entidad solicitante:

— Bateragarritasunaren gainean Declaración de compatibilidad*

- Ez duela jasotzen helburu hauxe bera duen beste inolako laguntzarik, ez herri administrazioetatik ez eta entitate pribatuetatik ere. / No está recibiendo ninguna ayuda o subvención con este mismo objeto y finalidad, concedida por administraciones públicas o entidades privadas.
- Laguntzaren bat eskatu diola herri administrazio edo entitate pribatu bati eta eman egin diotela. Horren gaineko zehaztapenak «Beste diru iturri batzuk» agirian adierazi behar dira. Ha solicitado una ayuda o subvención a alguna administración o entidad privada y le ha sido concedida. Debe detallar los datos de este punto en el documento «Otras fuentes de financiación».
- Laguntzaren bat eskatu diola herri administrazio edo entitate pribatu bati eta ebazteke dagoela oriandik eskaera. Horren gaineko zehaztapenak «Beste diru iturri batzuk» agirian adierazi behar dira. / Ha solicitado una ayuda o subvención a alguna administración o entidad privada y está pendiente de resolución. Debe detallar los datos de este punto en el documento «Otras fuentes de financiación».

— Beste hainbat adierazpen / Otras declaraciones:

- Euskadiko Elkarleen Erregistroan inskribatuta dagoela. / Está inscrita en el Registro de Asociaciones del País Vasco.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharren gaineko adierazpen edo agiririk ez duela aurkeztu behar. / No está obligada a presentar declaraciones o documentos a que se refieren las obligaciones con la Seguridad Social.
- Herri laguntzak eskuratzea debekatzen dion inolako zigorrak ez du izan, ez zigor penalik ez eta administratiborik ere. / No ha recibido ninguna sanción, penal o administrativa, que le imposibilite obtener subvenciones o ayudas públicas.
- Ez duela inolako lege debekurik, herri laguntzak eskuratu ahal izateko; bereziki aipatu behar luke sexu bazterkeriagatik debekurik izango balu (Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4%2005 Legearen seigarren azken xedapena bete nahian) . No está incurso en ninguna prohibición legal que la inhabilite para obtener subvenciones o ayudas públicas, con mención expresa a las que se hayan producido por discriminación de sexo (En cumplimiento de lo dispuesto en la disposición final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.).
- Indarreko arauak diru-laguntza hauek jasotzeko ezartzen ditzuzten eskakizunak betetzen dituela. / Cumple con los requisitos establecidos en la normativa vigente para ser beneficiaria de esas ayudas.
- Hala eskaerako nola eskaerarekin batera datozen agirietako datuak egiazkoak direla. / Los datos contenidos en esta solicitud y en los documentos que la acompañan son verdaderos.



V. ERANSKINA / ANEXO V

BESTE DIRU ITURRI BATZUK / OTRAS FUENTES DE FINANCIACIÓNBa al duzu beste diru iturririk? / ¿Dispone de otras fuentes de financiación? ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No

Zeintzuk? ¿Cuáles?	Jasotako zenbatekoa Importe concedido	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado
GUZTIRA / TOTAL		

Beste diru-laguntzarik eskatu al du? / ¿Ha solicitado otras ayudas? ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No

Zein erakunderi? ¿A qué organismos?	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado
GUZTIRA / TOTAL	

.....,

(Tokia / Lugar)

(Eguna / Fecha)

(Izenpea / Firma)